

Mitykas, Greziako tontorrik altuena

Guillermo Vío



REZIA oso lurralde turistikoa da, eta urtero bisitari asko abiatzen dira haraino bertako kultur ondare, itsaso, irla eta klimaz goatzera... eta guretzat, mendizaleontzat, zer? Ez dago inolako aukerarik?

Ez dut uste jende askok Greziara egunak mendialdean emateko bidaia prestatuko duenik, baina ohiko turismo barruan gure "tontor grina" asetzeko egun batzuk har daitezke mendiak egon badaudelako. Tontorrik garaienak 3000 metrotara heltzen ez badira ere, aurretiaz pentsa zitekeena baino eskaintza zabalagoa du Greziak, eta gainera, mendi hauetariko izen batzuk nahiko ospetsuak eta ezagunak egingo zaizkigu guztiok, gehiago ala gutxiago, ezagutzen dugun Greziar historia eta mitologiarekin oso lotuta daudelako, hala nola Delfos

(orakuloarena) hiriaren gain gainean dagoen Parnaso mendia (2457m) eta batez ere, Olinpoa, Zeus eta greziatar mitologiako jaungoiko guztien bizitokia. Halaxe egin genuen guk, eta Mytikasera, Olinpo mendikate tontorrik altuenera, eta beraz Greziako "sabaira", abiatu ginen egun pare bat emateko asmoz.

Mendi honetara egindako igoeraz ez nuen intentziorik artikulu bat idazteko nahiko lekua ezaguna eta batez ere, informazio ugaria egongo zela uste bainuen. Hala ere, "usteak erdi ustel" eta Pyrenaicaren 208. aleak, non "Munduko sabaiak" aipatzen diren harritu ninduen, "Pyrenaica" aldizkarian Mitykasi buruz argitaratutako artikulu bakarra 1975. urtekoa zelako. Beraz hona hemen apunte hauek, oinarritzko informazio gaurkotu hau (2002ko udakoa), hara hurbildu nahi duenarentzat.



■ Mitykas

■ "Olinpo"ko tontor batzuk

■ OLINPO ALA MITYKAS?

Olinpo Greziako mendirik altuena dela esan ohi da, baina ez da egia osoa, "Olinpoa" mendikatea baita, eta mendi multzo honetan tontor ugari daude: Skolio 2911, Stefani 2909, Aghios Antonios 2817, Prophestes Elias 2803, Kalogeros 2707 eta guztien gainerik Mitykas, 2917 metrokoa. Tontor hau da beraz benetako punturik altuena Grezian.

■ MENDIAREN KOKAPENA

Olinpo mendikatea eta Mitykas tontorrek oso erraza jarri digute bertaratzeko aukera, desbideraketa handirik eta Greziako "bazter galduenera" ez baitugu joan behar, ez horixe! Mendi honetara abiatzeko herririk egokiena Litochoro da, Atenasetik 425 kilometrotara, Tesalonikatik (Greziako 2. hiritik) 90 kilometrotara, eta hiri bi hauek lotzen duen autopistatik 6 kilometrotara besterik ez. Esan dudan bezalaxe, zalantzarik gabe, oso ondo komunikatua eta eskura dugu eskualde hau.

■ LITOCHORO HERRIA

6.600 biztanle duen herri honek oinarritzko azpiegitura guztiak ditu: hotelak gaua emateko, dendak edozer erosteko (hala ere txokola-



tea, fruta, fruitu lehorrak, gailera paketeren bat eta ura baino ez dugu behar izango) eta bereziki mendizaleen elkarteak, non oso gustura lagunduko diguten inguru honi buruzko informazioa eman; gurekin behintzat, oso jator jokatu zuten eta beraien bidez telefonoz hitz egin genuen Spilios Agapitos aterpearekin ohatzeak erreserbatzeko.

■ SPILIOS AGAPITOS ATERPEA

2.100 metrotan kokatzen da Spilios Agapitos aterpea. Aterpe dotorea, garbia, ondo zaindua, 140 lagunentzako tokiak, eta bertan azeria eta gosaria ematen dituzte. Lo egiteko ez da beharrezkoa losakoa eramatea mantak daudelako... garbi garbiak guri eskaini zizki-



gutenak. Polita da gaua aterpe honetan ematea, etxearen aurreko begiratokitik Egeo itsasoa ikusten baita. Sentsazio bitxia 2.100 metroan eta itsasoa haranaren amaieran!. Zaindu beharreko arlo bakarra eguna da, Mitykaseran mendizale asko hurbiltzen baitira eta gure igoera udako asteburu batean suertatzen bada, arazoak egon daitezke aterpean litera librerik aurkitzeko. Gure esku bada, merezi du egun burusoil batean joatea.

■ IGOERA

Orokorrean igoera aldapsua eta luzea da; zenbakiak begiratzea besterik ez dago, Litochoro 305 metroan dago eta Mitykasek 2917 metro ditu, beraz, ezbairik gabe, pendiza ederra aurretik duguna. Desnibela alde batera utzita, igoera oso ondo dago markatuta bere osotasunean eta galbide handirik ez dagoela esan daiteke.

Ibilbidea hiru zatitan bana dezakegu: Litochoro herritik Prioniara doana, Prioniatik Spilios Agapitos aterperainokoa eta aterpe honetatik tontorrera. Lehen zatiari dagokionez, Litochorotik Prioniara doana alegia, oinez zein kotxez egin daiteke. Gaur egun ohikoena automobila aukeratzea da bidea eta desnibela laburtzeko. 18 kilometro daude leku bi hauen artean, eta azken 3 - 4 kilometroetan izan ezik, errepidea ondo asfaltatuta dago. Prionia deritzon inguru 1100 metroan kokatzen da, eta bertan kotxea aparkatzeko lekua, kantinplora urez betetzeko iturria, turistak mandoren bat alokatzeko etxola eta taberna xume bat baino ez dago. Ez dezagun beraz, inolako erosketa utzi leku honetan egiteko. Oinez igotzea aukeratzan badugu, Enipeas ibaiak sorturiko zintzarritik barna doan 11 kilometroko xendari ekin beharko diogu. Xenda oso polita omen da (gu kotxez igo ginen) eta XVI mendeko Hagios Dionisos monastegi ortodoxoa ikusteko parada izango duzue. Kotxez igotzean, errepidearen bazterretako zenbait begiratokitik zintzarria ikus daiteke eta benetan ederra sumatzen dela.

Pronian hasten da gaur egun benetako igoera, eta Spilios Agapitos aterperainoko zatia egiteko kalkula ezazue 2 ordu eta erdi. Bidean pagadiak, konifera baso nardoak e.a. zeharkatuko ditugu.

Inguru berde honek Pirinioetako haranetatik gabiltzala pentsaraziko digu batzuetan.

Aterpetik tontorrera beste 2 ordu eta erdi edo 3 ordu gelditzen zaizkigu oraindik ere, eta orain arte esandakoa errepika genezake: bidea oso ondo markatuta dago eta aldapa handia mantentzen da, inolako lautada edo atsedean unerik gabe. Hasiera batean basotik jarraituko dugu, baina denbora gutxitan inguru gero eta zabalgo batera irtengo gara eta hemendik, oso argi sumatuko da Mitykasen tontor harritsua gure norabidearen eskuinaldean. Bidean, ordu bat eta erdi gutxi gora-behera ibili ondoren, Giossos Apostolides aterpera doan desbideraketa aurkituko dugu (esan zigutenagatik ibilaldi polita). Guk gureari ekingo diogu, Mitykaserantz, jadanik eremu guztiz zabalean eta mendi handietako itxurako lurraldean zehar: harritzak, glaziar ohiak... Skala deritzon azpi-tontorrera heldu arte.

■ AZKEN IGOERA

Skala 2888 metroan dago, eta Mitykas "hortxe" dugu, begi bistan, eskura. Ba horixe ezetz, azken 30 metroko desnibel hau oso luzea bihurtzen da. Skalan isurialdez aldatu behar dugu eta metro nahikoak galdu harri eta haitzen artean. Gero, zuzen, terreno malkartsutik tontorreko orratza azpiraino helduko gara eta trepadari ekingo diogu. Bide zati honi Kaki Skala (Eskailera Makurra) deitzen zaio. Trepada hau erraza da, eskuen laguntzez egiten da inolako ezusterik gabe, baina hori bai, abisu txiki bat... esan dugunez mendizale asko igotzen dira Mitykaseran, hori dela eta, harriak guztiz leunduak, borobilduak daude, beraz mendia bustita badago eta guk kirol zapatiletan bagoaz... nahiko labainkorra suerta daiteke zati hau. Baldintza bi hauek, gainera, oso erraz betetzen dira, mendizale kanpotarrok kirol zapatiletan igotzen dugu (30 metrogatik ez dugu botarik eramango ezta?) eta tontorra goizero bustita egoten da, Grezian bero handia egiten duenez eta mendi hauek itsasotik oso gertu daudenez askotan, uda aldean behintzat, ekaitzaren bat sortzen da; edo gutxienez hodeiek lainoan ezkatuzten dute tontorra egunsentiero. Zer pentsatzen dugu guk Perdido "La Esku-

pideran" edo Anetoko "Mahoman" zapatiletan ikusten ditugunaz?... ba horixe da grekotar mendizalek pentsatzen dutena gutaz.

■ BIDE BATEZ... BESTE TONTOR BAT: SKOLIO 2911

Skalan gaudela, Mitykas egin ondoren edo egin baino lehen, azpitontor honetaraino ekarri gaituen bideari jarraitzen badiogu, isurialdez aldatu gabe, jadanik gailurrerian, 30 minututan, eta oraingo honetan eskuak poltsikoetatik atera gabe, Skolio tontorrera helduko gara, Greziako 2. tontorrera. Merezi du beraz, igoera eta ahalgina honaino luzatzea.

■ OLINPOA, JAUNGOIKOEN BIZITOKIA

Mendizaletasuna eta tontor grina alde batera utzita "Olinpo" eskualdera bertaratzeko arrazoi ugari daude turista soila izanda ere. Natura ikuspuntutik, inguru hau guztia 1938. urtean "naturgune babestua" izendatua izan zen, eta 1981. urtean Unescok "Biosfera-erreserba" deklaratu zuen. Kultura ikuspuntutik ere, ez dago aitzakiarik: mendikatea lurralde historiko biren arteko mugan dago, Tesalia eta Mazedonia, Egeo itsasotik gertu, eta Litochorotik 9 kilometrotara Dion herria dago, non Mazedoniar garaiko aztarnategi inportantea aurkituko dugun. Dion mazedoniotarren hiri sakratua zen, eta Alejandro Magno hona etorri zen zenbait sakrifizioak eskaintzeko munduaren konkistara abiatu baino lehen... eta azkenik zer esan mitologiak? Mendi hauetan, Zeus Atenea, Apolo, Artemisa, Ares... bizi ziren eta honaino igo behar izan zuten gizakiok jaungoikoen sekretuak ezagutzeko (suarena batez ere) jaungoiek tximistak jaurtikitzen zizkieten bitartean... Zer gehiago eska dakioke leku bati, jaungoiek aukeraturiko bizitokia ezin da txarra izan... mendia, natura, kultura... nola egin uko leku honi? □

■ Litochoro herria, atzean "Olinpo" mendiak



ARGAZKIAK GUILLELMO VIG

Zenbait datu

Eguraldia

Greziako udak oso berotsuak diren arren, mendian izango dugun tenperatura atseginagoa da. Goizaldeak eta arratsaldeak freskoak dira eta iluntzetan nahiko erraz sortzen dira ekaitzak. Negu aldean noski, egoera zeharo ezberdina da, mendia guztiz elurtuta egoten baita.

Materiala

Ez da ezer behar, trekineko botak besterik ez.

Garraioak

Guk kotxe bat alokatu genuen, baina ez dago inolako zailtasunik garraio publikoetan mugitzeko. Kasu honetan Litochorotik Prioniara oinez edo taxiz igo beharko litzateke.

Informazioa

Litochoroko mendi elkartearen informazio osoa ematen dute. Herriko kanpo aldean dago haien egoitza.

Aterpea

Esan bezalaxe, egokia da oso, eta UIAA txartela erakutsiz deskontua egiten da.

Jatekoak

Aterpean afal eta gosai daiteke. Ibilaldian jateko behar izango duguna Litochoron erosteko aukera dago.



■ Mitykas-erako azken trepada

■ Skolio tontorra

Laburpena erdaraz

GRECIA es un país muy turístico y para las montañas y montañeros también tiene cumbres interesantes, como el Mitykas de 2917m, techo del país, Skolio de 2911 etc. Estas cumbres están situadas en los Montes "Olimpo", zona de gran interés paisajístico, histórico, mitológico y con varias cumbres entre 2700 y 2900 m.

La ascensión al Mitykas y al Skolio es fácil aunque larga y empinada y se realiza casi en su totalidad por senderos muy utilizados, bien marcados, (a excepción de los últimos metros del Mitykas) y pasando la noche en el refugio de Spilios Agapitos a 2100 m que ofrece todos los servicios de cena, desayuno etc. El pueblo desde el cual se inicia la ascensión es Litochoro (305 m) y esta muy bien comunicado con Atenas y Tesalonica.